

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORREAN EMANDAKO AZALPENEN LABURPENA

Elgoibarko Izarrak ziklo berrian landu nahi dituen lau erronkak kontuan hartuta eman genituen azalpenak:

1. erronka: Elkartearen bueltako hizkuntz komunitatea osatzea

Lehen erronka honen helburu nagusia Elgoibarko Izarraren elkarte-izaera sustatzea da.

- Bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea da lehen erronka honetako helburuetako bat, eta horretan dihardugu buru-belarri 2014tik hona. Bazkideen parte-hartzea areagotzeko hiru lan-lerro berri zabalduko ditugu aurten:
 - a.- Kulturekintza programa, elkartearen kultur eskaintza aberasteko.
 - b.- Gazteak eta Elgoibarko Izarra, elkartearen gaztetzeko proiektua.
 - c.- BARRENEen bazkideek parte hartzeko egitasmoa.
- Elkartean gero eta gehiago izateko apustua ere egin dugu, eta *Asko garelako!* bazkide-kanpaina jarriko dugu martxan aurten.

2. erronka: Elkartea ekonomikoki bideragarria izatea

Elgoibarko Izarrak aurrera egingo badu, bideragarria izan behar du ekonomikoki, eta hori da elkartearen bigarren erronka.

- Diru-laguntzek pisu handia dute elkartearen ekonomian, baina autofinantziazioa areagotzea da ziklo berriko helburuetako bat. Horretarako, besteak beste, zerbitzugintza eta auzolana sustatzen dihardugu.
- Elkartearen funtzionamendua hobetzeko apustua ere egin dugu ziklo berrian. Lana hobeto egin nahi dugu, eta egiten dugun lanari etekin handiagoa atera. Helburu hori lortzeko, bi lan-lerro dauzkagu martxan:
 - a.- Kudeaketa aurreratuari lotutako formazioa jasoko dugu urtebetez.
 - b.- Lantalde profesionala eta lan-sistema berrantolatzen dihardugu.

3. erronka: euskararen erabilera areagotzea

Elgoibarren euskararen erabilera areagotzea da gure hirugarren erronka, eta horretarako hiru proiektu dauzkagu martxan: Atxutxiamaiika, BARREN, eta helduen euskaltasuna.

- **Atxutxiamaiika, ume eta nerabeen euskaltasunean eragiteko:**

- a.- Aisia-egitasmo oparoa eskaintzen dihardugu, eta inoiz ez bezalako erantzuna izaten ari da. *Kiribilduz* programa ere berri egin dugu.

- b.- Lan-estrategiak, lan-sistema eta komunikazioa definitu ditugu, eta aisia egitasmoaren inguruko hainbat gogoetak egitera goaz.

- **BARREN, elgoibartarren arteko informazioa eta komunikazioa euskaraz izateko:**

- a.- Astekariak bere bidean egingo du aurrera, 2015ean diseinua berri ondoren.

- b.- barren.eus atari digitalaren kasuan, berriz, atariko komunitatea sendotu nahi dugu, batez ere, eta horrez gain, eraginkortasuna sustatu nahi dugu, sare sozialen bidez.

- **Helduen euskaltasunean eragiteko:**

- a.- Ohiko kultur eskaintzari *Kulturekintza* programa gehituko diogu aurrerantzean, bazkide militanteen parte-hartzearekin.

- b.- *Tertuliak* programak bi adar izango ditu: euskara ikasleena eta guraso-tertuliak.

4. erronka: Elgoibarko euskaltzaleen komunitatea saretzea

Elgoibarko euskaltzaleen sarea artikulatzea da laugarren eta azken erronka. Elgoibar herri euskalduna izateko ardura denona da, eta denok parte hartu behar dugu gure herriaren euskalduntze-prozesuan.

- *Euskarak 365 Egun* ekimena koordinatu dugu azken hiru urteetan, eta iazkoa benetan itzela izan zen. *Beitxu, beitxu!* lipdubarekin gure helburu guztiak bete ziren.

- Hasi gara aurtengo ekimena prestatzen, eta zehaztu dugu parte-hartzailea izango dela eta plazan aldarrikatuko dugula gure euskaltasuna, baina oraindik ez dugu egitasmoa lotu.

Elkartearen jarduna, kopurutan:

Kopuruak beti ez dira erabakigarriak izaten, baina askotan balio izaten dute haien atzean dagoena hobeto ikusi eta ulertzeko. Hona hemen aurtengo Batzar Orokorrean bistaratu ditugun kopuruak:

- Elgoibarko Izarra **637** bazkidek osatzen dugu.
- Momentu honetan **21** langile profesionalak lan egiten dute elkartean.
- **15-20** bazkide-militante dira elkartearen lan-dinamikan parte hartzen dutenak.
- Atxutxiamaikan **44** hezitzailek parte hartzen dute proiektuko lan-dinamiketan.
- **1.330** aisialdi-ordu prestatu ditu Atxutxiamaikak, eta **1.728** ume eta nerabek parte hartu dute ekintzetan.
- Ludotekak **238** bazkide dauzka eta, bataz beste, **35** erabiltzaile izaten ditu egunero. Gaztelekuak, berriz, **28** erabiltzaile izaten ditu egunero.
- BARREnek **4.860** harpidedun dauzka; barren.eus-ek, berriz, **655** notizia eman eta **229.378** bisita izan ditu.

Diru-kontuak ere ondo:

Pasa ditugu urte txarrak edo gogorrak, diruari dagokionez, baina azken urteetan buelta eman diogu egoerari, eta aurrekontuak pentsatu bezala edo hobeto betetzen ditugu.

- 2015. urtean, 686.565 euroko diru-sarrerak izan ditugu, eta 676.513 euroko diru-gastuak. Eraitza positiboa izan da, 10.051 eurokoa.
- 2016. urterako, berriz, 717.806 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditugu, eta 715.825 euroko diru-gastuak. Beraz, aurrekontuak daudenetan betetzen badira 1.980 euroko diru-irabazia izango dugu aurten.

Hori da aurtengo Batzar Orokorrek eman duenaren laburpena. Hala ere, bazkideren batek informazio gehiago edo sakonagoa nahi badu, etorri Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegora eta gustura azalduko diogu dakiguna.

Sarreran esan dugun moduan, bagoaz poliki-poliki ziklo berriari itxura ematen. Erronkak eta helburuak birdefinitzea izan zen ziklo berriko lehen zeregina, eta orain, besteak beste, kudeaketan eta lan-sistemaren berrantolaketan dihardugu buru-belarri.

Egiten duguna gara, eta, denon artean, ahalik eta ondoen egin eta eragiten jarraitu nahi dugu.

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea
Zuzendaritza Batzordea